



★ ATZEOZ AURRERA

Lander Muñagorri Garmendia

30 urte daramatza Eduardo Urdangaray argazkilaria (Mieres, Espainia, 1969) Asturiasko hainbat hedabiderentzat lanean. Gerretako berriemaile grafikoa ere izan zen hamar urtez, baina orain beste gai bati eskaini dio arreta: meatzaritza. *Tierra Negra. Minas y mineros* (Zoru beltza. Meatzak eta meatzariak) liburua argitaratu du Ramon Jimenez argazkilariarekin elkarlanean, eta erakusketa ere jarri du Gallartako meatzaritza museoan (Bizkaia).

Bazegoen meatzarien jarduna dokumentatzeko beharra?

Ramon eta biok meatze gune batean bizi gara, eta batera aritzen ginen gure jardunean eta aldizkarietarako argazkilaritzan. Horregatik, gaia asko landu dugu beti. Urte guztioan 30.000 argazkiko datu basea sortu dugu bion artean. Ez Asturiaskoak bakarrik, baita Leon [Espainia], Hego Afrika, Txekia, Alemania edo Frantziakoak ere. Orduan ez genion behar besteko garrantzia eman, baina orain ikusi dugu meatzaritzaren azken urteetako bilakera irudikatzen dela.

Nolako izan da bilakaera hori?

Jabetu gara antzekotasun handiak daudela Frantziako, Alemaniako eta Asturiasko meategien artean. Denek dute bide berdina: abiapuntu industrialak, berregituraketa, meatzaritzaren gainbehera, eta, aurten, Europako meategi guztiak itxi beharko dira. Atzera begira jarri eta pentsatu genuen une aproposa zela irudi horiek berreskuratzeko.

Begirada nostalgikoa izan duzue?

Zalantzarik gabe. Erakusketan ikus daitezkeen argazki asko duela hogeitau urte itxitako meategietakoak dira. Orain dena itxita dagoela, gogoratzeko unea da.

Baina, erakusketaz eta liburuaz aparte, meatzaritzaren artxibo bat



EUSKAL HERRIKO MEATZARITZAREN MUSEOA

«Meatzaritzak arrasto handia utzi du»

Eduardo Urdangaray • Argazkilaria

Urte honen amaieran, Europan dauden azken meategiak itxi egingo dira. Asturiasen indarrean dauden azkenak ixten direnean, Urdangaray jarduera ekonomikoa eroriko den beldur da.

ere sortu zenuten. Esan daiteke lan handia egin duzuela dokumentazio horretan, ezta?

Webgune bat sortu genuen, bildutako argazki horiek Asturiasen zabalitzeko, baina asko zabaldu zen, eta jende askok idatzi zigun argazkiak bidaltzeko. Lehen urtean 5.000 argazki bidali zizkiguten. Orain 16.000 argazki dauzkagu webgunean, hamabost herrialdetako 300 egilerenak, eta, Google bilatzailearen arabera, meatzaritzari buruzko webgunerik bisitatuena gara Europan. Bada zerbat.

2018. urtea amaitzerako, Europa meategi guztiak itxita beharko

dutela ebatzi du Europako Bata-sunak. Zuek, ordea, lanean jarraituko duzue meatzaritzaren inguruan...

Bai, amaituko da, baina gu saiatuko gara oroimen kolektibo hori gordetzen, meatze horiek izan zuten garrantzia transmititzen. Asturiasen 24.000 meatzari zeuden 1990eko hamarkadan, eta egun 800 besterik ez daude. Meatzaritzak arrasto handia utzi du eremu guztietan.

Nola geratuko da Asturias azken galeriak ixten direnean?

Industrialki, basamortu bat da orain; baita meatze inguru ere. Asturias gainbeheran dago, ez dira

bestelako enpresak sortu. Meatzaritzarekin zerikusia zuten enpresak itxi egin dira apurka, eta ia ez dira ordezkatu. Gainbehera begi bistan egongo da urtea amaitzen denean. **Zer egin behar zela iruditzen zaizu?**

Nik ulertzen dut meatzaritza kutsagarria dela, baina hori bagenekien duela hogeitau urte. Orain mundu guztia kezkatuta dago, ez dagoelako jarduerarik. Baina Europatik 18.000 milioi euro etorri ziren sistema ekonomikoa berritzeko, eta dirua desagertu egin zen. Errepide eta autobide ugari egin dira, baina existitzen ez den industria bati zerbitzu emateko. Orain, sekulako errepideak dauzkagu Asturiasen, inoiz izan gabeko modukoak, baina ez daukagu erabiltzeko enpresarik. Ez dago 600 langiletik gorako enpresarik. Diru hori gastatu da, baina ez behar bezala, eta ez da sortu ehun industrialik.

Orain meatzaritzako galeriak bisitatzeko aukera egongo da, eta turismoarako erabiliko dira...

Tira, orain jendea jabetzen ari da badagoela txatarra horregatik guztiagatik ordaintzeko prest dagoen jendea. Baina hori berria da, eta ez da batera koordinatua izan. Orain arte, meatze bat ixten zenean osorik eraisten zen. Baina, orain, jabetzen ari dira bota zen hori guztia aberastasun bat izan zitekeela, ondare industrialaren ikuspegitik. Sekulakoa izan zitekeen. Orain jabetu dira, baina galdutakoa ezingo da berreskuratu.

Baina beste asko ere egongo dira ezta?

Bai, jende askok esaten du hori: 50 meatze bota baziren ere, oraindik beste 30 ditugula. Baina 50 horiek utzi izan bagenitu, Asturias potentzia bat izango zen industria arkeologikoan. Alemaniak oso ondo mantendu zuen bere ondarea, eta urtero hiru milioi bisitari ditu: bisitatzeko moduko hamalau meatze. Guk 90 izan genitzakeen! Ez da berdina asko eduki edo gehienak edukitzea.

LOTSABAKO

Amets bat? Bota zituzten galeriak berri ikusi eta ondo mantentzea.
Nori aterako zenioke argazki bat? Ez nuke bururik galduko inori argazki bat ateratzeko.
Eta nori ez? Mundu hau gobernatzen dutenei.